

Lehendakari anderea, Gobernu buru, Gobernu kide mai-teok, Batzarkideak, egunon denoi.

Hitzaldia prestatzen hasi nintzenean zalantza izan nuen, motzean ala luzean aritzea. Motzean aritzeko tentaldia, aitortzen dut, handia izan zen, gaiaren inguruan bota dituzuen horrenbeste tontakeriei ez erantzutearena alegia. Tripetatik ateratzen zitzaidana seguruenik. Buruarekin aritzea deliberatu nuen eta luzean aritzea erabaki nuen; gaiari seriotasunez heldu eta banan, banan zuen gezur eta trikimailu guzti, guztiei erantzun beharra neukala, gipuzkoarrek merezi zutela eta nire kideek ere.

Honela nator; lasai eta luze hitz egitera natorkizue; urdailako tximeletek eztarria, gehiegi estutzen ez badidate eta emozioek naturaltasuna izorratzen ez badute behinik behin. Lasai, lasai nagoelako, egindakoarekin eta egiteke dagoenarekin lasai. Akatsak, akats harro irtenbidearen eta konponbidearen alde mahai gainean daukagunarekin. Orain urtebete baino osatuago, jantziago eta esango dudanarekin seguruago.

Kontzientzia lasai, egindakoaren errua, balego, konbentzimenduak daukalako, lo lasai asko egiten dudalako, as-

kotan esan dizuedan moduan, hemengo askok berdin esateko gai ote zareten zalantza handiekin, aurpegira zuzen begiratzeko ere gai ote zareten.

Lasai eta haserre, zergatik ez. Haserretik ere erantzungo dudalako. Gipuzkoarrekin eta bere etorkizunarekin jolasten ari zaretenaren ziurtasunak haserrea pizten didalako, bere bizi kalitatea eta gure lur ama zaindu beharrean, alderdikeriekin jolasten duzuelako, nahiago duzuelako boto ziztrin batzuk eskuratzea, hondakinen kudeaketa egoki eta jasagarri baten inguruan adostasunak jostea baino.

### **“Ladran, luego cabalgamos”**

dio gaztelerako esaera zaharrak. Arrazoia du esaerak, zaunka aritu baitzarete nire kontra, mina egingo zenidatelakoan eta gobernu oso baten ildo nagusienetako batean aldaketak eragingo zenituztelakoan. Adierazi duzuen aldiz, garela, ari garela eta ondo ari garela da. Ondo ariko ez bagina ez zinetelako horrenbeste haserretuko, ez zenuen egoera azken muturreraino eramango.

Egoera azken muturreraino eramateko gainera gezurra eraiki duzue, zuen medio boteretsuetan, zuen interes poli-

tiko eta ekonomikoen mesederako dituzuen medioetan egia ez den errealitate bat islatzen aritu zaretelako.

Gezur horiek zuen benetako helburua ezkutuan mantentzeko bota dituzue, sustrai ahuleko eraikina osatu duzue ordea. Datozen minutuetan, luze irudituko zaizkizuen minutuetan eraikina eraitsi araziko duten arrazoi, datu eta argumentu sendoak entzungo dituzte gipuzkoarrek, daukazuen benetako aurpegia garbi ikusi ahal izateraino.

### **Lehen gezurra, galanta eta demokraziarako iraingarria gainera.**

Urteetan landutako adostasuna apurtu omen dugu, Bildu eta Diputazioko gobernua Gipuzkoako gehiengoak dionaren kontra omen doa. Hori da, gehien errepikatzen duzuen leloa, Gipuzkoako eta gipuzkoarren nahia soilik zuek gehiengoa duzuen erakundeetan balego bezala. Baina normala da joera hori izatea, hamarkadak pasa baitituzue erakundeak zuenak bailira kudeatzen.

Historia pittin bat, pedagogia pittin bat egitekotan aurkituko gara honetan ere.

2.006 eta 2.007 urteak ziren, garai ilunak Euskal Herrian, demokrazia desagerrarazia zegoelako gure erakundeetan, herritarren borondate askean eraikitako erakunderik ez zelako ohikoa gure herrian.

Urte horietan hain zuzen ere josten da horrenbeste miresten duzuen hondakinen kudeaketarako adostasuna. Momentuz bazterketaren gaia albo batera utziko dut, geroago helduko baitiot.

Non, zeinen artean josten da adostasun hori? Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera joango gara, 2.007ko maiatzaren 17kora adibidez. Sorpresa, sorpresa. Aiba, Batzar Nagusiak ez daude, por dios, sakrilegio. Gipuzkoako zazpi komunitate, denak ez, Txingudi ez dagoelako, beraz ez da Gipuzkoa osorako, Donostiako Udala eta Diputazioa soilik.

Eta zer adosten dute? Ba hitzez hitz irakurriko dut, baten batek memoria egin dezan eta gipuzkoarrek jakin dezaten.

*Izenburua irakurriko dizuet lehenik: Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketa zehazteko hitzarmena.*

*Bigarrenik aitortzen dute bat datozela lurralde historikoko hiri hondakinen kudeaketari buruzko diagnostikoarekin*

*Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Hitzarmena izenpetzen duten mankomunitateek finantzatuko dituzte hitzarmen honen eragindako obligazio guztiak.*

## **Zeintzuk eta Batzar Nagusiak ez direnak? Aiba, urdurituko zineten orduan ezta?**

Beraz nola defendatu zenuten garai hartan Batzar Nagusiei egiten zitzaien iseka, iraina, eskumen oste eta gurekiko esan dituzuen astakeri galantak? Ba inolaz ere. Oso normala jotzen delako, munduko edozein tokitan, gaiaren eskudunak direnak hartzea erabakiak, baita hemen ere, orain arte behintzat, zuen boterea partekatzeko beharra sentitu duzuen arte, zuen boterea eta agintzeko eta inposatzeko duzuen jarrera eta joera arriskuan ikusi duzuen arte, desberdin pentsatzen duenak erakunde horietan gehiengo duela konturatu zareten arte.

Espainiako justiziak bazterketa politikoa aplikatzeko zuen helburu berbera duzue zuek, herritarren borondatea bihurtu, zuen intereserako.

Neuk esango dizuet, badaezpada ere hanka sar ez dezazuen, akordioa, lehen aipatu dudan moduan, 2.007ko

delako, zuek zentsura mozioan urratutako printzipio edota lege hauste bezala aipatzen duzuen 6/2005 Foru Araua onartu eta gero.

Zergatik egiten da horien arteko adostasuna? Ba oso garbi, eskumena eurena delako, beraien arteko adostasunik gabe ez dagoelako irtenbide logikorik.

Hasiera, hasieratik jarri du mahai gainean gobernu honek, Ingurumen Batzordean nik neuk egindako lehen agerraldian bertan, bi gehiengo arteko adostasuna beharrezkoa zela, derrigorrezkoa, bietako batek bere gehiengo hutssez aurrera egin nahi izan ezker ez genukeela irtenbide egokia lortuko.

Horretan saiatzeagatik, saiatze hutsagatik kargutik kentzeko makinaria jarri duzue martxan, egoera horretan deseroso sentitzen zaretelako, erabateko agintea zuen eskuetatik alde egiten dizuenean, zuen adostasunerako gaitasuna eza agerian geratzen delako.

Egoera honek agerian uzten du zuen demokrazia eza, futbolearen denon artean ibili behar denean, joko zelaia neu-

trala denean eta arbitroa erosten ez duzuenean, nahiago duzue baloia zulatu.

Aipatutako hitzarmenean ere horren kutsua nabaria da. Garai hartan baztertuta zegoena noizbait erakundeetara itzuliko zela aurreikusten zenez eta adosten ari zen kudeaketa ereduarekin desadostasun nabariak zituenaren jakitun, akordioa betikotzeko klausulak sartzen dira, Kontsorzioko estatutuetan.

Hala, mundu guztiak uler dezan esango dut: gaur eta hemen adosten duguna norbaiti aldatzea okurritzen bazaio, hau da orain adosten duguna, hots errauskailua egitea, hirugarren batek apurtu ez dezan, denon aldekotasuna beharko du. Ez gehiengoa eh!, ez, denak. Hau da, beto eskubidea jartzen zaio adostasun berriei, gehiengo politiko berriei, helburu bakarrarekin, errauskailua egin nahi zutenek beldur zinetelako gipuzkoarrek erabakiko zutenarekin, beti bezala.

Baina hezurra jo duzue. Gipuzkoarrek hala erabakita, eskumena dutenei, udalei, ezer inposatzeko prest ez dagoen gobernuak daukazuelako aurrez aurre. Eta horrek mina

ematen dizue, egia, arrazoia, desberdinaren iritzia jasanezina bihurtu zaizue.

Gurpil zoroan sartu zarete eta dirudienez, ateratzea zaila suertatzen ari zaizue. Urrutiegi joaten ari zarete, zailago jarri aurretik gelditu zaitezte eta adostasunera hurbiltzeko umiltasuna izan ezazue.

Gobernuak akordioa errazteko borondatea ez ezik, lana egin du, hori ahalbideratuko duen tresna jarri du mahai gainean.

Mezulari hau kendu arren, mezua ez du aldatuko, oso garbi daukalako hau dela bidea, garai hartan lege antidemokratikoz baztertuta zegoen familia politikoa kanpo uzten duen akordioak ez duelako biderik.

Hori onartzeko prest ez dagoenak jai du Gipuzkoan. Batzar Nagusietan gehiengoa osatzen duzuenak hau onartzeko prest ez bazaudete Gipuzkoa zatituko duzue, zuena da ardura nagusia, gobernuaren teilatuan jarri nahi duzuen pilota zuen eskuetan dago oraindik eta lehertu egingo zaizue, berandu baino lehen, ustez gehiengo honek ematen dizuen boterea partekatzeko prest agertzen ez bazarete.



Medioetan gobernuaren gutxiengoa islatzen saiatzen zarete, indarra zeinek duen erakutsi nahian zabilzate, gobernuko kideak panpinak bailiran erabiltzen dituzuela demonstratu nahian. Indarra ordea arrazoiak ematen du, elkarrizketako grinak, desberdina entzun eta adostasunak bilatzeko ariketak ematen du. Horretan indartsu gaude, urteetan demonstratu izan dugu, herritarrekin hitz egin eta bidea elkarrekin eraikitzeke ez dugu lotsarik, eurengandik asko ikasten dugu egunero, ez baikara bulegoetan bizi, herrietan baizik.

Gipuzkoarrek ederki asko dakite hori, ez dira batere inozoak, jakin bai baitakite mugimendu honen atzean interes hutsalak ezkutatzen dituzuela.

Beraz eta lehen zati hau amaitzeko berretsi gobernuak irekitako bidea, irtenbidea bilatzeko bide bakarra dela, adostasun zabala behar duela Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak, gehiengo desberdinak errespetatuko duen adostasuna, baina batez ere, kudeaketaren eskumena duten udalen nahia errespetatzean oinarritzen den akordioa, erakunde hau eta Diputazioa bera ez baitira udalak baino

handiago, udalak baino gehiago, urtetan eta urtetan hala sinestarazi egin nahi izan zaigun arren.

Gure larruetan bizi izan dugunok ederki ikasi izan dugu hori, garbi izan ezazue gaur eta hemen zaudeten alkate zein zinegotziek, zuen eskumenen defentsa azken muturreraino eramateko prest daukazuen gobernua duela Gipuzkoak, hemengo gehiengoa erabilita inposatu nahi zizkizuten ereduaren aurrean, adostasunerako jarri duen tresnarekin aurrera egiteko erabakia eta gaitasuna duena.

**Bigarren gezurra, ez aurrekoa baino samurragoa, ez horixe. Gobernua gipuzkoarren interesen kontra dihardu eta indarrean dagoen plangintza bete eta bete arazi behar du.**

Zati honetan gobernuak eta, kasu honetan, Foru Diputatu honek gaizki eginak omen direnak aztertzeraz hurbilduko naiz. Zentsura mozioan aipatzen direnak lehen eta hila-bete honetan bota dituzuen hainbat lore ondoren.

Lehen aipatu dut, urratzen omen dugun 6/2005 Foru Araua, nahi duzuenean aldarrikatzen duzuela.

Uste dut nahiko garbi utzi dudala lehen adostasuna Arau hori kontutan hartu gabe josi zela eta Batzar Nagusietara akordioa berrestera soilik ekarri zela.

Beraz non egin dut nik gaizki, non erratu da gobernuak, hori aldarrikatu eta lortzeko tresna idatzi eta mahai gainerratu duenean?

Ez al da izango adostasun hori ez duzuela gustuko, ez duzuela inolako asmorik hori ahalbideratzeko eta beste helburu batzuk lortzeko erabiltzen ari zaretela?

Gure ustez argia da, gipuzkoarren interesak bost axola zaizkizue.

Honatx, aipamen batzuk horren erakusle. Esperantza handia ez dudan arren, ia baten bati muxugorria jartzen zaion.

Markel zuk zeuk esana da, 2.007ko udan, mankomunitateek erabakitzen zutena errespetatuko zenuela, errauste planta ez bazuten ontzat jotzen errespetatu egingo zenuela, eurena zela konpetentzia. Hori da hain zuzen egin zenuena, berriz ere bazterketa politikoaz baliatuta, man-

komunitateen gehiengoak ontzat eman zuen plana eta hona ekarri zenuten, 7/2008 Foru Araua onartuz.

Orain berriz esaten diguzu hori, orduan balio zuenak, 2.008ko Arau Foral aurretik esan zenuela eta orain ez duela balio. Orain mankomunitateen gehiengoak errauste plantan oinarritzen den plana ez duela babesten konturatu zarenean ez du balio, zure hitzak irentsi egiten dituzu eta kitto. Sentitzen dut hau esatea, baina hori tranpa egitea da, Markel, baina horren nabarmena da gipuzkoarrek ikusi egin dutela, ezin dela honela jokatu. Harrapatuta sentitu zarenez, umeak jolastokietan bezala, "etxe" esan eta ezkutatu egiten zara. Baina hain nabarmena denez, aurreko asteko argazkian ere nabari egiten zaizula, arrazoien faltan lotsa pasa beharra. Nik neuk behintzat sentitzen ez dudana, horra hor zure eta nire arteko aldeetako bat.

Ez Markel, ez. Ez du balio eta horren jakitun zera. Ez duzue onartu nahi aurreko urteko hauteskundeetan gipuzkoarren gehiengoak aldaketaren hautua egin zutela, baita hondakinen kudeaketan ere. Eta hori onartu eta errespetatu egin behar da, errealitate berri hori aintzat hartu eta adostasun berria josi.

Bestela EAJ-k adierazten duena da 2007an zegoen bazterketa politikoa baliatu nahi duela, orduan jositako akordioa bururaino eramán nahi duela eta Gipuzkoako gehiengo abertzale eta aurrerakoiaren aurka goberna arazi nahi gaituzuela. Batu Gaitezen famatutik, Bazter Dezagun gordinera. Aurreko astean, zentsura mozioa aurkezteko ateratako argazkiko batasuna nahiago izan ezkerro errespetatu egingo dugu, ez zaigu bestelakorik geratzen baina argi hitz egin gutxienez, herritarrak ez gehiago engainatu.

*Se me ocurren algunas preguntas sin mala intención: Además del interés general de beneficiar a todos los guipuzcoanos, ¿qué otros intereses existen? ¿Por qué se quiere controlar desde la Plaza de Gipuzkoa todo lo relacionado con la eliminación de residuos? ¿Cuál es la competencia de la Diputación Foral en esta materia? ¿Dónde queda la autonomía municipal para ejercer sus competencias?*

*Por supuesto, tengo varias respuestas a cada una de las preguntas, pero sólo apuntaré que, además de los intereses de los guipuzcoanos, existen los intereses de quienes podrían querer construir y explotar una gran planta de*

*cientos de millones de euros. Por supuesto, esto no puede estar en manos de los municipios, que no tienen capacidad para gestionarlo; hay que controlarlo desde la Diputación, se argumenta desde sectores interesados. Sin embargo, la competencia de la Diputación, en todo caso, es la de planificación indicativa, mientras que la competencia material de planificación y gestión se encuentra en los ayuntamientos y mancomunidades.*

*Pero parece que para algunos la autonomía municipal solo vale si se aceptan los deseos de la Diputación Foral. Si sois malos y no aceptáis lo que nosotros decimos desde el Palacio Foral, os quedáis sin un euro.*

Alberto Buen. El País, 7 Noviembre de 2.003

Creo que acierta Alberto, nada sospechoso de alinearse con las tesis de Bildu en el gobierno foral, en este artículo que curiosamente tituló ¿Las basuras objeto oscuro del deseo? Cuando describe la situación, lo único que varía con la situación actual es que él critica al gobierno foral por no respetar la autonomía municipal y hoy nos encontramos con que es la mayoría de los y las junteras de esta institución la que quiere pervertirla.

Zer da orduan PSErentzat udal autonomia orain? Gipuzkoarrei gutxienez azalduko diezue udalen borondate askea errespetatzea baino handiagoa den zein interes ezkutatzenduzuen zuen ekimen honen atzean? Ez al dute gutxienez azalpen hori merezi?

Zuek ere ez daramazue oso ondo aurreko udal hauteskundeetan jasotako jipoia. Berdin da logikaren kontra baldin bazabiltzate ere, arrazionaltasunaren arerio bihurtzen bazarete ere.

Zentro eskuineko batzarkideak bildu zarete, gutxienez argazkia gardena da. Zalantza da zer egiteko, Foru Diputatu hau kentzeko bakarrik? Horrekin badakizue arazoa ez duzuela konponduko eta berdin zaizue.

Gauza on bakarra lortu duzuela ematen du.

Dejar contento a mi tocayo, que es único que sale sonriente en la foto. Con cuatro junteros y 25 concejales, de los casi 1.000 en los ayuntamientos gipuzkoanos, con representación en 13 de los 88 municipios del territorio has conseguido un protagonismo que para si quisieran estos

dos. No me extraña nada esa sonrisa picarona con la que les miras.

Zein ari da beraz Gipuzkoa eta gipuzkoarren interesen kontra? Diputazioko gobernua ez, ezta gutxiagorik ere. Gipuzkoar eta Gipuzkoa osoa aintza hartuko dituen adostasunen bila dabil, zuei gustatu ala ez.

Inori ezer inposatu gabe, bakoitzak dituen eskumenean oinarrituko den adostasunaren bila. Zuek aldiz ez duzue hori nahi, betiko moduan zuen eredia inposatu nahi duzue, hemen duzuen gehiengoa erabiliz plangintza bete eta bete arazi egin behar dugula hamaika aldiz onartu duzue. Horregatik kendu nahi banauzue, ohorea izanen da niretzat.

Zentsura mozioan Foru Diputatu honen jardunaren inguruko balorazio ugari dago, gehien gehienak, informazio desitxuratu eta manipulatuetan oinarriturik egonik, gezurrak direnak.

Ez naiz hasiko orain guztiei erantzuten, hori bai luzeegia eta aspergarria litzatekeelako. Baina aipamen batzuk egin



beharrean aurkitzen naiz, bestela egin bezala pasako direlako ganbara honetako liburuetara eta hori ez da zilegi.

Gezurra baita alde bakarreko erabakiak hartu ditudanik, are gutxiago gure eskumena ez den bilketa sistemaren inguruan, baina inon eztabaidatzen ez den sistemen inguruan sortu duzuen zalaparta justifikatzeko beharrezkoa duzue. Kutrea baita egiten ari zaretena. Estatuko gobernuko ministerio eta ministroaren errekonozimendua jaso duen sistemaren aurrean hartu duzuen jarrera soilik justifika daiteke baldin eta argi esaten bada, zuen mirakulua bihurtu duzuen errauskailua kolokan jartzea lortzen duela. Europako herrialde aurreratuenetan sortzailearen erantzukizunean oinarritzen diren bilketa sistemak direlako aurreratuenak eta ohikoenak, atez ate biltzen baita Flandrian, Austrian, Suitzan, Italian, Catalunyan, Alemanian eta beste hamaika herrialdetan. Erosoago, eraginkorrago eta hondakinaren kudeaketa egokiago batentzat ona delako. Ez gehiago, ezta gutxiago ere.

Grazia gehien egin didana halere adostasunak lortzeko gaitasun falta dudala irakurtzea izan da. Zeinekin, adostasunetara iristeko inolako borondaterik ez duenarekin, bere

gehiengoa inposatu nahi duenarekin. Mesedez, adarrik ez jo, zuek zarete adostasunaren orde, gatazka elikatzen ari zaretenak, aurrekoari euste hutsagatik, araudia inork ulertzen ez duen lekuraino eraman duzuenak. Nire foru diputatu kargua, gobernuak emandako agindua eta ardura betetzeagatik eta bi gehiengo horien artean adostasuna biltzeko egindako lanagatik kargugabe arazteko erabakia hartzen baduzue, aurrez esan dudan moduan ohorea izango da, nire lana txukun bete izanaren sentsazioarekin geratuko bainaiz. Kontrakoa litzateke arraroa eta zer pentsa araziko zidana, zuen erabaki eta jarrerari men eginez, Gipuzkoa udalerrri eta udal erakundeen gaineratik pasa nahi izatea.

Honelako jarrerak eta erabakiak asko sufritu dituen herri batetik dator, posizio demokratikoa, zilegia eta herritarren babesa zuena mantentzeagatik, zentro eskuin honen aldetik mespretxua eta inposizioa besterik jaso ez duen herri batetik.

Hitzaldia prestatzen ari nintzela, nire bizitza politikoa baldintzatu zuen lagun batek esandakoa etorri zait burura. Jose Xabier Portugal Arteaga jaunak, bere gaixotasunean,

zuk Markel gure herriaren kontra eta gaur bidelagun dituzun horiekin berberekin, zentro eskuineko horiekin batera gidatu zenuen erasoak jaso genuenean mezu bat bidali zidan, beti presente edukitzen dudana:

Henry Kissinger, tras impulsar el golpe de estado liderado por el general Pinochet contra el Gobierno legítimo de Salvador Allende, manifestó:

*"Estos temas son demasiado complejos para dejarlos en manos de los votantes chilenos".*

Erabakiak, hondakinen inguruko erabakiak, gipuzkoarren esku uzteko beldur zarete zuek ere. Aurreko legealdian hiru ziren herritarrekin partekatu ezin ziren gaiak, zuek, boteredunek, hemengo gehiengo politikokoek hala erabakita iltzatu nahi zenituztelako. Gogoratuko al ditugu? Abiadura Handiko Trena, zoritxarrez gure eskumenetatik at geratzen dena baina kristoren kalteak sortuko dituen gure lur aman, Pasaiako kanpoko Portua, zorionez bere azkenekotan den astakeria eta, hara non, errauskailua.

Kasualitateak ez dira egunerokoak politikan, ezta gutxiago ere. Lotura zuzena dute, bloke politiko monolitikoak de-

fendatzen eredu, orain arteko statu quo mantendu nahi duzuenak zarete. Gipuzkoarrek ordea beste eredu bat nahi dute.

Legea urratzen omen dudala diozue, ez dudala legea betetzen. Kargu politikoa izanik horri delituaren zantzua hartuko nioke nik. Ez du ez hanka ez bururik.

Bigarren atal hau laburbilduz, agerian geratu da honetan ere tranpa egiten ari zaretela, zuek zaretela akordiorik nahi ez duzuenak, udalei hondakinen kudeaketa eredu inposatu nahi diozuenak eta gipuzkoarren interesen ordeztan interes alderdikoiak lehenesten dituzuenak. Herrigintza egin ordeztan alderdigintzan ari zarete, beti modu zekenean egin duzuen bezala.

**Hirugarren gezurra. Gobernuak amildegira darama Gipuzkoa, ez du planik eta zaborrak jango gaitu.**

Bada ekialdeko esaera zahar bat, euskaraz diona "Leloek, ilargiari beharrean, berau erakusten zigun behatz erakusleari so egiten ziotela"

En castellano reza que “Mientras el dedo señala la luna, los necios miran el dedo”.

Os comportáis de igual manera, os empeñáis en mirar al dedo y no a la luna.

Baina okerrena da, parez pare ederra, garbia eta argitsua agertzen zaigun ilargiari begiratu beharrean behatza begiratzeko esan eta esan ari zaretela gipuzkoarrei. Europako norabidea argitzen duen ilargia, etorkizuna, garbitasuna argitzen duen ilargiari begiratu beharrean, puntan, puntan jarriko gaituen plana argitzen duen ilargiari begiratu beharrean, behatzari begira, so jarraitu nahi duzuela.

Baten batek, ingurumen jakintza hartu duen politologo eskas batek, iragarri zigun orain ez asko, Bilduk aurkeztuko zuen plana kaka bat izango zela, lanean ari zirenak ez zutelako inolako esperientziarik hondakinen kudeaketan. Berriz ere Babian egongo zen. A ze zaplaztekoa hartu izango zuen planaren egileen curriculumak ikusi zuenean, jostailua izorratu egin zitzaionean. Inozoa haiz motel. Horrenbeste urte politikatik bizitzen eta oinarrizkoena ikasten ez duten kastakoa baitugu.

Hilabeteak pasa dituzue esanez, eta zentsura mozioaren testuan ere saiatzen zarete, ez zegoela kudeaketarik, nahiko lan izan dugunean Kontsortzioan urteetako utzikeria konpontzen, urteetan lurraldean biltzen ari zen zati organikoarekin zer egin ez zekitela aritu baitzineten, edo hobe esanda, konponbidea bilatu beharrean egoera okertzen uzten, soilik Usurbilen ereindako haziak ez zuela ondo funtzionatzen demostratzeko. Espero ez zenutena, zuen inongo kalkuluetan sartzen ez zena, Kontsortzioaren eta Mankomunitateen gehiengoa galtzea zen.

Hilabete hauetan egoera konponbidean jarri dugunean, egurra ematen, inoiz erantzun behar ez nituen galderak eta agerraldiak eskatzen. Organikoa behar bezala Itsasun tratatzen hasi garenean, Frantziara zaborra esportatzen ari ginela, Lapatxeko plantan zuen aurreko kudeatzaileek utzitako kolapsoa konpontzeko irtenbidea lizitazio publikoa baitean onartu genuenean bazterrak nahastu dituzue Gaztela Leongo gobernuak, eskumenik izan ez arren, enpresa presionatzen ibiltzeko ea konponbidea oztopatzen zenuten. Zenbat orri, zenbat minutu grabazio, zenbat telebista irudi

ez ote dituzuen probokatu izango, egoera kaotiko bat irudikatu nahian.

Lehen ere esan dut, gipuzkoarrak ez gara inozoak, gure kaleetan hondakinak biltzen jarraitzen dute eta kudeatzen jarraitzen da. Ez dago kaosik. Zuen saiakera guztiak, banan, banan, erortzen joan dira. Oso politiko kaskarrak zarete, horretan ere.

Azkenean, gobernuak egungo errealitatea aintzat hartuta, plangintza aurrera eramateko estrategiarik eraginkorrena zein izan daitekeen mahai ganean jarri duenean, akabo. Dokumentu horretaz ahaztu, badaezpada ere, ea taxuzkoa dela aitortu beharra izango zenuten.

Jakin badakizue, ezkutatu egin beharrean aurkitzen zareten arren, zuen estrategia osoa eta hilabete hauetan mantendu duzuen jarrera ulergaitza egingo zaiolako edozein gipuzkoarrari, hondakinen kudeaketarako plangintza berraztertu beharra zegoela eta dagoela. Aurreko plangintzan aurreikusita zegoenarekin aurrera egin ezkerorazko arazo larriak sortuko zirela. Hori jakin badakizue, baina noski, hori deabruari arrazoia ematea litzateke.

Antes muerta que sin silla.

Estrategiari, irakurri duenak behinik behin, akatsak atera diezaioke, noski, ekarpenak, hobekuntzak, lan sakonagoak egitea, aztertu gabe gelditu izan dena aztertzeko eskaera egitea zilegia ez ezik, erabat beharrezkoa litzateke. Baina ez duzue sartu nahi izan.

Edozein gipuzkoarraren zergatik galderari, erantzun azkarrara ematen diozue, guk gehiengoa daukagulako, eta gehiengoak erabaki du egindako lan horrek ez duela piperrik ere balio eta guk onartutakoak balio du. Eta hori da egin behar dena, eta kitto, kitto.

Eskolako ume batek ere badaki indar gutxiko erantzuna dela, nik hola agintzen dudalako. Maisua naiz lanbidez eta horrela erantzun behar izan diodanean ikasleren bati, badakit ez didala ulertu eta denbora irabazteko egin dudala, benetako erantzunaren faltan nengoelako.

Baina zuek ez duzue atzera egin, keba, alderantziz. Zuen posizioa indartzeko nire kargua eskatu duzue. Zein da helburua, edukiez ezer ez hitz egitea? Ziurrenik, edukiez, mamiz hitz egiten hasten garenean, totem asko erortzen



hasiko direlako, berdinen arteko eztabaida batean murgildu beharko genukeelako eta hor ez zarete eroso, lasai sentitzen. Eztabaida horretan aulki eta botoi boteretsuaren babesa galtzen duzuelako.

Aholku bat, zenbat eta lehenago esertzen zareten termino horietan hitz egitera zuentzako hobe.

Baten batek, bere memoria erabiltzea, edota memoriarik ez badu, hemeroteka horretarako dago eta bilatzea besterik ez dago eta orain urte batzuk mantentzen zenituzten posizioetan aurkituko duzue egungo estrategia.

*Donostiak toki aproposa izango du instalazioren bat egiteko, baldin eta konpostajea, biometanizazioa edo tratamendu mekaniko-biologikoa egiteko bada, baina inolaz ere errauste planta bat egiteko.*

Aibala, PSEko Ingurumen Idazkariaren hitzak dira, Denis Itxasorenak. Kopon, ze susto. Momentu batean pentsatut dokumetu honetako 90. orrialdea irakurtzen ari nintzela.

*Por otra parte, les pregunto a los defensores de esta incineradora que nos han impuesto en un proceso antidemo-*

*crático, qué van a hacer con las escorias que produce la incineración.*

Jope, benetan gaur baten batek tila hartuko beharko du, egoera honetan lasaitzeko. Gure Odon berriz ere hizketan.

Estrategia berriak Gipuzkoa zabortegi handi batean bihurtuko omen du esan duzue batek baino gehiagok. Egi borobila, egi bakarra da, estrategiak 2.020 urterako erraus-tegiak sortzen duen hondar tona kopuru berdina planteatzen duela. Non dago aldea beraz?

*Una sociedad moderna ve la gestión de los residuos como parte de un proceso, como una oportunidad equilibrada de convivencia en el territorio y no como un problema. Los socialistas madrileños apostaremos con nuestras acciones y nuestras propuestas por un modelo basado en la reducción de residuos como primer objetivo, y en el reciclaje y la reutilización. El mejor residuo es el que no se produce. Al tiempo, creemos que en Madrid existe tecnología, capacidad y convicción para que la gestión de residuos sea modélica, limpia y justa.*

*De forma clara, nos oponemos a la incineración de residuos con o sin recuperación energética (incineradoras, cementeras, altos hornos o similares), en todo el territorio de la Comunidad de Madrid, apostando por un tratamiento de los residuos lo más cerca posible de donde se producen, por una recogida selectiva de la materia orgánica, por los sistemas de devolución y retorno de envases (SDDR) y por la recogida selectiva "puerta a puerta" en los municipios que sea posible. Todo ello para alcanzar políticas de Residuo Cero.*

Zer du ona Madrilen aplikatu daitekeenak, Gipuzkoan bekatu mortala izatera iristeko? Pertsonak, politikoen maila agian?

Estrategia hori, hondakinen kudeaketarako politika hori Madrilen izan beharrian, Gipuzkoan da, eta Alderdi Sozialistak planteatu beharrian, Bilduk planteatu du. Hori da alde bakarra; ñabardura txiki batekin, hori egiteagatik Foru Diputatu hau gurutzatu egin nahi duzue. Beno bada jakin dezaten gipuzkoarrek zer dagoen honen atzean, arrazoi sendorik edo ideologikorik ez behintzat.

*Un problema siempre difícil, que exige corresponsabilidad institucional, pedagogía política y disciplina por parte de la ciudadanía.*

Diziplina? Nork dio hori? Odonek berriz. Tematia tipoa eh. Herritarrei diziplina eskatzen? Hamaika ikustekoak jaioak gara! Faltan botako dugu azkenean!

Bilduri herritarrek gehiengo osoa eman dioten herrietan zertan ari dira PSEkoak egiten orain? Erreboltara deitzen, diziplinarik ez, derrigortasunik ez. Modu itsusian gainera, zeren panfleto hauek bai direla kutreak eh! Har ezazue diseinatzaile on bat gutxienez.

Bakoitzaren benetako erretratua egiteko erabilitako aipamenak, zitak albo batera utzita gatoz berriz ere, gure hondakinen kudeaketarako estrategiara.

Lehen esan bezala, foru gobernuak, ikuspegi desberdin, kontrajarriak litezkeenak agian, elkarrekin hitz egiten has-teko, adostasunetara iritsi ahal izateko tresna egin du.

Denon artea, gure hondakinen kudeaketan Europako lehenengo postuetan egon ahal izateko gipuzkoar guztien artean gin behar dugun bidea egin ahal izateko malguta-

suna eskaintzen duena. Murriztean, berrerabiltzea, birziklatzean eta materialen balioztatzean oinarritzen den estrategia da hau.

Beraz, plana badago. Estrategia egokia, ona, Europako adituek idatzia, bertan onartzen ari diren ebazpenetan oinarritzen dena eta erdi prezioan gainera. Zer da orduan gustukoa ez duzuen? Neuk esango dizuet, geuk egin izana, Bilduk eraiki izana eta herritarrekin, gipuzkoar guztiekin konpartitu eta eraiki nahi izatea. Hori da benetako mina eragiten dizuen. Horregatik bakarrik jo duzue nire kontra, gobernuaren kontra.

Orain arte erabili dituzuen argumentuak, zuen aitzakia besterik ez dira, agerian geratu da ez duzuela gai hau serio hartzen, ez duzue horretarako interesik.

Zentsura mozioa zuen benetako helburua estaltzeko kea izan da, ez du indarrik, ez du inork ulertzen eta berandu baino lehen kontra izango duzue.

Utz iezadazue halere azken aurreko atal honetako errematea gazteleraz esango ditudan hitz batzuekin:

*"comprendo que os esforcéis en darme lecciones públicas y que deba aprovechar bien vuestros consejos. Pero, por favor, no pretendáis convencerme, ni insistáis en quemar también mi ilusión y la de muchos ciudadanos y ciudadanas gipuzkoanas, por encontrar una solución más sostenible, ecológica y de vanguardia para el tratamiento de los residuos en Gipuzkoa. Os ruego que, cuando menos, respetéis y estudiéis la opción alternativa que propongo y déis una oportunidad al diálogo y al pacto cívico".*

Odon Elorzak idatzitako gutun baten paragrafo bateko moldaketa da. Ondo dagoela iruditu zait. Alkate ohi baten harrikada izango ote?

**Azken helburua. Ezkerreko soberanisten eta independentisten oldarraldia eten eta gobernu eskuratzeko kromo banaketa egiten ari-tzea da.**

Hau da zuen benetako helburua. Udal eta Foru hauteskundeak emaitzak oraindik orain zuen laborategietan aztertzen jarraitzen duzue.

Arrotza eta jasanezina egiten zaizuen egoera hori nola irauli pentsatzen eta probatzen ari zarete gobernura iritsi ginen momentutik. Lehen lehenik ahaldun nagusia kolpatzen hasi zineten, uda zen eta notizia eskasian gezurra ere notizia omen, orduan ere gezurrak.

Uda pasa zen eta orduan hasi ziren gobernu programaren ezaren istiluak, gobernatzeko genuen ezjakintasuna, jakin arren gobernu sendoa osatu zuela Martinek, kudeaketan esperientzia genuen batzuekin eta bere balio profesionala meritu zuten kideekin osatu zuelako. Hori ere ez zen nahikoa izan.

Udazkenean hasi zineten etxe hau erabiltzen zuen erabakiak gobernuari inposatzen hasteko. Galderak ehunka, horrekin foru funtzionarioak nazkatzea besterik lortzen ez duzuen arren, agerraldiak komunikabideetan sortutako zalaparta axolagabeei erantzuteko, interpelazioak edonon eta edozeini, esan eta erabaki ez dituen gaien inguruan bada ere.

Gure gobernuko kideen bizitza pertsonalaren kontra jotzeko ere ez duzue lotsarik izan. Beste behin ere gezurra tarteko.

Zalaparta, zalaparta mediatikoa gobernuaren kontra jotzeko, hauteskundeetan etekina aterako zenituztelakoan. Hor ere kale, gipuzkoarrek bizkarra eman baitzizueten beste behin ere.

Horrekin guztiarekin gobernu eta bide batez Bildu ahultzeko helburua behin eta berriz tronpatu egiten zela ikusiko zuten laborategikoek eta hondakinen kudeaketaren bandera hartzea agindu zizueten. Jo eta su. Hor hasi zarete herrietan, Batzar Nagusietan, parlamentuan, leku guzietan bazterrak nahasten.

Politikaren hondakinen zaborrik kutsakorrena ateratzen ari zarete, kiratsa dariola erakusten ari zarete zuen jarrera.

Honekin halere arazoa konpontzetik urrun zaudetela jakitun zarete, bost axola ordea. Politikaren alde zikinena ateratzen ari zarete, arazoei irtenbideekin, konponbideekin erantzun beharrean, arazo gehiagorekin erantzunez. Herri-tarrek gure herrietan eta gure lurraldean ditugun arazoak konpontzeko jarri zaituztete, ez honelako liskar ulertezinetan aritzeko.



Nola azalduko diozue, arazoa konpondu baino nahiago duzuela arerio ahultzeko estrategia azken muturreraino eramatea?

Azkenean osatu duzue, ezkerreko soberanista eta independentisten kontrako frontea, Miramongo hirukoa bezala ezagutuko duguna. Zoritxarrez gipuzkoar abertzaleentzat mingarria, Bizkaitik agindutakoa betetzea besterik erremediorik ez duzue izan. Juan Carlos Cano pozteko bada ere, agintea berreskuratzeko beharrezkoa bada, edozein gauza egiteko prest zaudetela agerian uzten ari zarete.

Herritarrek epaituko zaituztete, gehiegitan jolasten duzue euren arazoekin, behingoagatik utz itzazue alboan alderdi-keriak eta joka ezazue plaza gizon edo emakume moduan eta denon arteko adostasuna josteko lanean murgil zaitzte.

Estrategia hor duzue, elementuak hor dituzue, gu prest gaituzue, zuen prestutasuna falta da.

Amaitzeko, benetan tentuz eta adi, adi jarraitu duzue zuzenduko naiz. Plazerra da zuekin lana egitea. Hasieran esan dut, osatuagoa naizela eta beste gauza batzuen ar-

tean zuekin ikasi dudanaren ondorioa ere bada. Mila esker Martin, niregan jarri duzun konfiantzagatik, mila esker nik publikoki, pulpitu honetan izan, batzordetan izan ala prentsaaren aurrean izan, defendatzea tokatzen zaidanean, modu isilean eraikitzen laguntzen ari zareten guztiei, mila esker nola ez, modu batean edo bestean euren elkartasuna eta babesa eskaintzen didaten gipuzkoar zein kanpotarrei eta mila esker nire gorabehera guztiak agoantatzen dituenari.

Nahi duzunerako eta Martin, behar nauzunerako.